



## Pentsamenduaren norabideak XXI. mendean

**S**ail honetan pentsamenduaren orainari eta geroari buruz aurkeztu ditugun lau artikuluetan, dagoeneko, hainbat eta hainbat auzi jorratu eta aztertu dituzte egileek: humanismo eta filosofia klasikoaren amaiera, globalizazioa, inperialismo berria, ideologiaren etorkizuna, intelektualaren eginkizun soziala, gizarte zibilaren erantzuna... Auzi hauek etorkizunean ere zeresanik eman go dutelakoan gaude, gizakiaren eta gizartearen sakoneko aldakuntzekin harreman zuzena baitute.

Aurreko lan hauek osatze aldera, batzuren eta besteren iritzia jaso nahi izan du *Jakin*-ek. Beraz, sail honetako azken atalean sei aditurengana jo dugu XXI. mendean pentsamenduak har ditzakeen norabideei buruz galdeginenez. Horrela, Joxe Azurmendi, Juan Bautista Bengoetxea, Jose Maria Cabo, Eduardo Gil Bera, Elena Martinez eta Joseba Zulaika idazle eta filosofian adituak erantzunak bildu ditugu.

Ondoren, aditu hauei, gidoi lagungarri gisa, planteatu dizkiegun auzi nagusiak datoz. Zertan esanik ez da gidoi honi norberak bere ikuspuntutik heldu diola:

- *Globalizazioa eta pentsamendu bakarra*  
Globalizazioak dakarzkigun aldaketei begira, zer pentsamendu mota ari gara garatzen? Nola islatzen ditugu ekonomia berriaren, neoliberalismoaren eta Internet-planeta-

ren emaitzak? Nola erabakiko da pentsamendu bakarren eta anitzaren arteko tentsioa?

- *Ideologia eta pentsamendua*

Egia al da egun ideologiarik gabe pentsatzen dugula, ideologiak hilik daudela? Ilustrazioaren ametsari jarraituz, badirudi pentsamendua oraindik kritikoa dela. Baina, benetako pentsamendu kritikoa daukagu edo soilik itxurazko kritika? Ba du etorkizunik XXI. mendean?

- *Intelektualaren eginkizuna*

Zein da intelektualaren eginkizuna? Beharrezkotzat hartzen dugu zeregin hau etorkizunean? Zein izan daitezke, bere pentsamendua zabaltzeko orduan, intelektualak erabiliko dituen forma edo moduak, bitartekoak eta eduki esparruak?